


DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 235. zkia. 2015eko ekaina



Burulogy.com



Buruarentzako gimnasioa

EUSKARAK

365

EGUN

noiznahi, nonahi
orain, hemen



365egun.eu

ARGITARATZAILEA:Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Burulogy

LAGUNTZAILEAK:Amaia Arriaga, Antonio
Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentín Mugarza eta
Gaizka Areitioaurtena.**ARGAZKIAK:**Jabi Alberdi, Igone Amesti,
Amaia Arriaga, Ibaia
Azagirre, Burulogy, Estibalitz
González, San Lorenzo
Eskola, Jesus Cimarro, Gaizka
Areitioaurtena, Valentín
Mugarza eta Ekhi Velar.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.


*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

Ipurtatsa turón común *Mustela putorius*

Arboladietan, ibai ertz eta padura inguruetan bizitzea maite du igerilari bikain honek; igotze kontuetan, ostera, dezente traketsagoa da. Arbolen sustraian edo egur piloan artean atontzen du bere gordelekuak, belar eta goroldioz estaliz gozo-gozo. Esparru txiki samarrean egiten du bizimodua, joan-etorri berdinak erabiliz eta familia arteko talde txikietan multzokatzeko ohitura du. Atzeko hanken gainean paratzen da hobeto begizatzeko eta bere burua arriskuan ikusten duenean, hats higuigarri nazkantea botatzen du babes gisa, paretik aldentzeko direnak eta ez direnak. Elikatze kontuetan? Bidean gurutzatzen duen edozein karraskari, txori, arrain, intsektu, anfibio edo zizare.



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Alejandro Massie (Ekuatore Ginea)	BOTEPRONTOAN16 Margari Olañeta
ELKARRIZKETA5-7 Jesus Cimarro, antzerki ekoizlea	KIROLZALE17 Jon Unanue 100 milen bila
MALLABIAN ZER?8-9 Aurreko mendeko ezkontza	IRITZIA18 "Ermuko institutuak eraikina behar du"
ERREPORTAJEA10-11 Burulogy	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN.....12-13 III. Gazte Eguna	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?14 Alaia Arroyo, arkitektura ikaslea	KALEKO INKESTA21 Auto-stopa egin duzu? Norbait auto-stopan hartu duzu?
ESKOLEN TXOKOA15 San Lorenzo Eskolako berriak	AGENDA22 Uztaileko agenda (Santixau aurrekoak)

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de BizkaiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Alejandro Massie

Ekuatore Gineako oihanak utzi eta Madriletik igaro ostean, maitasunak ekarri zuen Alejandro Ermura. 30 urte daramatza gurean. Hemen dena daukala dio, baina Ekuatore Ginean duen familia hurbilago edukitzea gustatu litzaioke.

-Nolakoa zen Rio Muni zu han bizi zinenean?

Denbora asko ez da han egon naizela eta antzera jarraitzen du, baina hobetu da. Ekuatorean dago eta oihana da dena. Zuhaitz handiak daude. Naiz eta kontinente barruan egon, itsasoa-rekin mugan dago eta hondartzak daude. Afrika beltza da. Ez dago esplotatua, turismoa ez da bultzatu... beraz, hau baino basatiagoa da.

-Han bizitako urteak nola gogoratzen dituzu?

15 urterekin etorri nintzen Europara, beraz, haurtzaroa igaro nuen Ginean. Zeinen pozik bizi nintzen gogoratzen dut, arazo eta ardura barik.

-Zerk bultzatu zintuen hona etortzera?

Nire aitak erabaki zuen atzerrira joan behar nintzela. Osasun arazo bat izan nuen eta han ez zegoen medikuntza aukerarik ni sendatzeko, beraz, hona etorri nintzen. Sendatu nintzen, ez zidaten bueltatzen utzi eta hemen geratu nintzen. Hemen batxilergoa egin nuen eta gero medikuntza karrera.

-Hemen familia zeneukan?



Ez, barnetegi batean geratu nintzen Madrilén. Nire gurasoak bisitan etortzen ziren eta oporretan ni hara joaten nintzen. Hasieran pixka bat traumatikoa izan zen, baina eurak hona zetozen eta ni hara, eraman-garria egiten zitzaidan.

-Zerk harritu zintuen etorri zinenean?

Negua zenez, hotzak. Ez nekien nondik irteten zen hainbeste hotz! Gero, eraikuntza handiek eta argiek ere harritu ninduten, dena zementua zela eta ia zuhaitzik ez zegoela. Pelikuletan ikusi izan nuen horrela zela, baina zuzenean ikustea ezberdina da.

-Ekuatore Ginean gazteleraz egiten denez, hizkuntza bazenekien behintzat.

Bai, gaztelera hizkuntza ofiziala da han. Hala ere, gurasoekin fang hizkuntzan egiten dut berba.

-Eta Madriletik Ermura, zergatik?

Istoria luzea da (barreak). Sorian egin nituen medikuntza ikasketak eta han Ermuko neska bat ezagutu nuen, nire ikaskidea zena. Adiskidetasuna, azkenean, zerbait gehiago bilakatu zen eta berarekin Ermura etorri nintzen. Gainera, Ginean arazo politikoak zeuden eta ezin nintzen bueltatu.

-Zer da Ermutik gehien gustatzen zaizuna?

Jendea, lagunak, koadrila, txikiteoa... Txikiteoaren debotoa naiz (barreak).

-Zer moduz moldatzen zara euskararekin?

Defenditzen naiz. Etxean denek euskaraz egiten dute, kurtso intentsiboa egin dut eta nahiko ondo moldatzen naiz. Berba egitea kostatzen zait, baina ondo ulertzen dut.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Jesus Cimarro, antzerki ekoizlea:

“Inspirazioa lan eginez heltzen da”

Antzezlanetan ez dugu ikusten, baina berak ahalbidetzen du antzezlari horien sorrera eta garapena. Jesus Cimarroren aurpegia ez da kartel handietan ikusten, baina haren izena sarri agertu da Estatu osoko antzerki gehienetan. Are gehiago, bere izena antzerkiarekin zerikusia duen edozein tokitan agertzen da. Ez ditugu gaur eguneko dituen kargu guztiak aipatu, leku hauetan ez dagoelako tokiarik. Bere kuttuna bakarrik izendatuko dugu, bere antzerki ekoizetxea, Pentacion. Ermua, bere jaioterria, utzi eta antzerkiaren mundua konkistatu zuen Pentacionekin. 27 urte igaro dira ordutik, baina ikuskizunak jarraitzen du.

- Nola heltzen da antzerkia zure bizitzara?

1980an Ermuan antzerki tailerra sortu genuenean. Lehen Udal demokratikoe-kin antzerki tailerrak sortu ziren han eta hemen eta, Durangoko Geroa konpainiaren laguntzarekin, Ermuan bat sortu genuen. Antzerkiarekiko afizioa hori baino lehenagotik neukan, EGBko 7 edo 8. mailan horren inguruan zerbaitegin genuelako, baina antzerki tailerra sortzearekin batera ateratzen zait antzerkiarekiko pasioa. Orduan antzerki klaseekin eta antzerki programazioarekin hasi nintzen Ermuko Zinema zaharrean.

- Noiz arte aritu zinen han?

1986ra arte egon nintzen Ermuan, Madrilera etortzea erabaki nuen arte. Hiru urtez antzerki tailerrean aritu ostean, Geroa antzerki taldera batu nintzen eta eurekin Espainia eta Amerikako Estatu Batuetan bira egin zuten hiru antzezlan egin nituen.

- Beti egon zara eszenatoki atzean, hau da, ekoizpenean?

Bai. Ermuko antzerki tailerra egin genuenean 'antolakuntza' deitzen genion guzti horri eta, gaur egun, 'kudeaketa', 'ekoizpena'... deitzen zaio.

- Zerk eraman zintuen Madrilera?

Geroa konpainian nengoenean goia jo nuen. Horizonteak zabaltzea nahi nuen, beste akzio eremu batzuk edukitzea, eta hori Madrilera aurki nezakeen. Madrilera etorri nintzen hainbat jenderekin elkarlanean ibili nintzen 1988az geroztik zuzentzen dudana antzerki ekoiztetxea sortu arte, Pentacion.

- 27 urte daramatzazu Pentacionen buru. Zer datorkizu oroimenera atzera begiratu eta horren sorkuntza momentuan pentsatzean?

Hasierak beti izaten dira zailak eta korapilatsuak, baina oso gogotsuak. Enpresa eta kudeaketa eredu berria ezarri nahi genuela argi geneukan eta horren gainean eraiki genuen Pentacion. Ikuskizunak ekoizten hasi ginen eta urte hauetan zehar 140 antzezlan baino gehiago sortu ditugu. Gainera, Bellas Artes eta La Latina antzerkiak kudeatzen ditugu.

- Aipatu bezala, urte asko daramatza Pentacionek antzerkigintzan erreferentzia izaten eta punta-puntan jarraitzen duzue. Zein da gakoa?

Lana ondo egitea. Ermuko antzerki tailerra sortu genuenean eta Geroan ari-



tu nintzen sasoiaren ere, beti zorrotzak izan gara gure lanean. Proiektuak aurrera atera ahal izateko lan egin behar da eta arrakastaren gakoa lana, lana eta lana da. Inspirazioa lan eginez heltzen da; lanean ez bazauda, inspirazio gutxi helduko zaizu.

- Gako horiek zuk idatzitako eta gaur egun antzerki ekoizleentzat erreferentziakoa den 'Manual de producción, gestión y distribución del teatro' liburuan aurki daitezke?

Momentu honetan libururen 4. edizioa prestatzen dihardut, beraz bai, erreferentziakoa dela esan genezake. Antzerki ekoizpenerako testu-liburu bilakatu da, eskuliburu. Izan ere, gai horren inguruan ez dago ia eskulibururik. Praktikatik teoriara idatzia dago, eta lanbide hau ikasi ahal izateko niri edukitzea gustatuko litzaidakeen liburuan pentsatuz dago idatzita.

- Zuk praktikaren bitartez ikasi duzu lanbide hau?

"Egin-eginean ikasi dut, praktikaren bitartez"






SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 www.zermik.com
 Usatxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

Bai, egin-eginean ikasi dut, praktikaren bitartez. Hori da eskola onena.

- *Pentacion zuzentzeaz gain ekoizpengintza irakaslea, Europako Ikuskizun Enpresarien kidea, Espainiako Dantza eta Antzerki Ekoizleen Enpresa Elkartearen Estatu Federazioko presidentere zara. Nola moldatzen zara bizitza errealean hainbeste paper antzezteko?*

Talde ona daukadalako inguruan. Pentacionen 110 pertsonen egiten dute lan, adibidez. Kudeaketa talde oso ona daukat eta horrek beste lan batzuk aurrera eramaten lagun-

tzen dit.

- *Orain dela lau urte Meridako Antzerki Klasikoko Nazioarteko Jaialdia zuzentzeko ardura hartu zenuen. Bere egoera txarra zen orduan eta gaur egun bere ospea berreskuratu du. Nola lortu duzu jaialdia berpiztea?*

Aipatu dudan bezala, lan, lan eta lan eginez. Ordena ipini nuen kaosa zen jaialdi batean. Antzerki jaialdi baten gako programazioa da eta hori gero nola saltzen duzun. 2011an, nik zuzendaritza hartu nuenean, jaialdiak 40.000 ikusle inguru izan zituen, eta 2014ean 123.000. Izugarria da, ko-

“BEZ kulturalarena zentzugabekeria handia da”

puru handia delako. Bes-tetik, jaialdia egokitzen zaion tokian kokatzea lortu dugu. Tematika greko-erromatarra lantzen duen jaialdi gutxienetakoa da hori, Merida Antzerki Erromatarrean egiten da (toki ikusgarria dena eta Espainiako antzerki handiena 3.000 eserlekurekin), eta estatuko eta Europako jaialdi zaharrene-tarikoa da. Bada, bere tokian kokatzea lortu dugu eta estatuko ekintza kulturalen 13. postua erdietsi du.

- *Nolako aurreikuspena egiten diozu aurtengo edizioari?*

Aurre-salmentari begiratzen badiogu, ondo. Lazko edizioko datuak mantentzearekin konformatzen naiz, baina ea hobetzen ditugun.

- *Antzerkiaren krisiaz egin da berba urte askotan eta are gehiago gaur egun. Antzerkiak, hala ere, tente jarraitzen du eta, zuen kasuan, arrakastarekin. Zein da gaur eguneko diagnostikoa?*

Antzerkiak tente jarraitu du antzezlanak ikustera joaten jarraitu duelako jendeak. Publikoak antzerkia oso gustuko duela. Orain dugun arazo handiena BEZ kulturala da. Mariano Rajoyren Gobernuak, orain dela hiru urte, enpresak ‘heriotzara’ eraman dituen zerga hori ezarri zuen eta lotsagarria da kultura modu honetan zigortzea. Horregatik sortu zen 7.000 enpresa baino gehiago batzen dituen Enpresa Kulturalen Elkarte, non ni bozeramailea naizen, eta ez naiz nekatuko errepikatzen hori zentzugabekeria bat dela.

- *Ermuan zuk ekoiztutako lanen bat ikusteko aukera izango dugu laster?*

Bai, badago Udalak kontratu duen ikuskizunen bat. Orain dela hilabete gutxi Concha Velascoren lan batekin izan ginen eta niri gustatzen zait nik ekoiztutako lanekin joatea.

Ekhi Velaz



AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

es egolek
electrizaritza
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

AURREKO MENDEKO EZKONTZA (II)

Aurreko hileko alean eta oraingo honetan, 1907 eta 1913ko Mallabiko bi "Ezkontza kapitulazio", ezkon aurreko bi kontratu izan ditugu hizpide. Agiri batetik, senargaiak eskaintzen duenaren inbentarioa eta bigarrenetik andregaiak senarraren baserrira karriatuko duen arriue edo dotea entresakatuko dugu orriotara.

Lotu eta adostu beharreko gauza askoren artean, dokumentuotan bakoitzak aportatuko duen gauza guzti-guztien zerrenda zehatza jasotzen da idatziz. Batek dioskunez, hauxe topatuko du kanpotik datorren andregaiak. Balio ikaragarria ganaduarena, baserriko tresna baliotsuenen ondoan:

"Cinco vacas, cinco crias, un cerdo y Burra tambien con su cria, valoradas en 2.750 pesetas. Dos carros con sus enseres, dos yugos con los suyos, un arado de cinco puas, otros dos de siete con su cadena, otra caldenilla para asegurar el carro, otro arado de una pua llamada golda, otro para escardar el

maiz, un cilindro para labrar la tierra, un collar de campanillas, una sogá para el carro y ocho cadenas para asegurar ó amarrar los semovientes, valoradas en 335 pesetas".

Eta jarraitzen du, ezer ez ahazteko ahaleginez:

"Cuatro pares de layas, dos azadas para argoma, otras ocho para cabar, cinco achas y otras herramientas manuales, en 50 pesetas. Trigo, maiz y alubia por valor de 950 pesetas. Las pajas de trigo, los fijos y la leña, valoradas en 460 pesetas. Un cuero para albarcas, en 50. Dos gallinas, en 20 pesetas. Por completo una arca, una

alacena, una cama compuesta de cuja, gergón, dos colchones, un cabezal ó almohadon, una sobrecama y dos mudas de ropa blanca, una nueva y otra usada apreciados en 114 pesetas. Los vestidos personales consistentes en tres de paño, una capa, seis pantalones, tres chaquetas, cuatro blusas, cuatro calzoncillos, cuatro camisas interiores, tres boinas, cuatro pañuelos moqueros, doce camisas, cuatro pares de medias, dos de zapatos, un par de albarcas y la herramienta de cantería con una barra, valorados en 412".

Bigarren ezkontza-kapitulazioetan, andregaiaren arreo ekarpena:

"Una vaca, una cama de nogal, otra de castaño, un colchon de muelle, otro de paja, una comoda de nogal, otra de castaño, un armario de cocina, cuatro colchones de lana, veinte y dos sabanas, tres almohadas y un almohadon, doce fundas para almohadas, dos colchillas, una sobrecama ordinaria, cuatro sillas, tren de cocina y herramientas de labranza, doce camisas nuevas, seis usadas, dos trajes nuevos, dos usados, varios vestidos, zapatos, dos servilletas, dos tohallas con una suma total de 1.410 pesetas".

Estibalitz Gonzalez



Oh la lá!
EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

SAN JUAN JAIXEK - GOITTA AUZUEN

EKAINAK 23 MARTITZENA SAN JUAN BEZPERIE
7retan TXOPUE ALTZATZIE eta SAN JUAN SUEK

EKAINAK 24 EGUAZTENA SAN JUAN EGUNE
12:00etan MEZIE eta ondoren LUNTXE
17:00etan BRISKA TXAPELKETIE
Ondoren TXOKOLATADIE

EKAINAK 26 BARIKUE
21:30etan AUZO AFARIXE

EKAINAK 27 ZAPATUE
18:00etan TXINGA ERUTE LEHIAKETIE HERRIKO NESKA ETA MUTILENTZAT
20:00etan TORTILLA PATATA LEHIAKETAKO PRESENTAZIÑUE
20:00etan ASTO PROBAK
IRAZOLA ETA BITORIO ZELAIA
Ondoren TXAPEL JAURTIKETA TXAPELKETA

EKAINAK 28 DOMEKIE
11etan MEZIE
MALLABIKO GAZTE ALAI DANTZA TALDEA
HARRIJASOTZEN: AIMAR IRIGOIEN
14.30ean PAELLA TXAPELKETAKO PRESENTAZIÑUE
(eurixe bada suspendidu eingo da)
17:30ean UMIEN JOLASAK
17:30etan TUTE TXAPELKETIE
19:00etan BOLA PREMIXUEK
Ondoren txokolatadie eta rifen zozketie.

UDALEKUEK

Aurten ere Satxibu aisialdi taldiek Mallabiko haur eta gaztientzat udalekuek antolatatu ditu. Bertan 4-14 urte bittarteko 50 umek emon dabe izena. Umiekin batera, 7 begirale arittuko die.

Ekaiñan 29tik uztailan 17ra arte goizeko 9:30xetan elkartu ta eskolan egongo die eberdiko 13:00ak arte. Aisialdi taldiek jakittera emon dau, egunero gai bat oinarri hartute horren inguruko ekintza ezberdinek egingo dittuela (jolas, esku-

lan, kantu, antzerki...) Berrizko igerilekure bi irteera eta Oñatiko Arrikruztera beste bat egitie be aurreikusitte deukie. Horretaz gain, umiek herrixe hobeto ezautzeko helburuaz, Mallabixen bertan txango batzuk eingo dabez.

BIHARKO IZARRAK

Ekaiñan 5en jokatu zan herrixen Biharko Izarrak lehiaketako finala. Finalean Anartz Olano (Areso, 20) eta Ander Imaz (Oiarzun, 20) Adur Lasa (Uhartea 21) eta Asier Arteagaren (Lasarte-Oria, 18) aurka aritu ziren. Azkenik, partida ona jokatu eta 22-16ko emaitzarekin Anartz Olanok eta Ander Imazek jantzi eben txapela. Lau térdiko finalari dagokionez, Xabier Etxebarria loritz Egigurenen aurka aritu zan. Partida nahiko berdintsue izen zan azken tantuetara heldu arte. Azkenik 22-19ko emaitzaren ostean, Xabier Etxebarriak irabazi eban.

KONTZEJUZARRA

Herrixen galdetegixe egin ostien Kontzejuzarra izena jarri jako elizian eraikiñan ondoko lokalari, sasoi baten espazixo horretan udaletxe zaharra egon zalako. Dagoeneko erabilgarri dau funtziño ezberdinek eukiko dittun espazio honek. Lehenengoz atiek jendiari ekaiñan 3en zabaldu jakozan, Jakoba Rekondok emon eban hitzaldi jendetsuen.


Igone Amesti eta Ibaia Azagirre



SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

hamburguesería
TITANIC



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

mari asun 
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



MALLABIKO Herriko taberna



Eguneko platera (3€),
menua bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)

Burulogy, burua lantzeko aplikazioa

Aitor Oteiza eta Irune Martinezek jarri dute martxan buruarentzako gimnasio hau Izarra Centerren eta momentuz bide laburra egin badute ere, pozik ikusten dituzte bertara hurbiltzen direnak. Burua lantzeko ohitura hartzearen garrantzia azpimarratzen dute eurek, “burua muskuluen antzekoa da; ez baduzu lantzen, ‘indarra’ galtzen du”. Teknologia eta hezkuntza zientziak uztartu dituzte horretarako.

Izarra Centerrek batu zituen Aitor eta Irunereren bideak. Aitorrek informatika ikasketak egin zituen eta Yuzz programan izena eman zuen bere proiektua gauzatzeko. “Amamak alzheimerra dauka eta nik informatika ikasi dudanez, ikasitakoa gaitz horri aurre egiteko erabili nahi nuen”. Irune, bere aldetik, pedagogoa da. “Hirugarren adi-

nekoentzako proiektu bat egiteko asmoa neukan, alzheimerra zutenentzat ere, baina zerbait teorikoa zen”. Ez zuten elkar ezagutzen, baina Izarra Centerren zuten tutoreak lotu zituen bien bideak proiektu komuna gauzatzeko.

Burulogyn parte hartzen dutenek burua lantzeko ariketak egiten dituzte ta-

bletean. “Tabletak erabiltzen ditugu, manieiatzen errazagoak direlako ordenagailu arruntak baino”. Pertsona nagusiek hartzen dutenez parte, “gehienek ez daukate teknologia horiekin trebakuntza handirik”.

Programa erabili ahal izateko tailerrak antolatuta dituzte Burulogyn. Hau da, ez dute programa egin eta sarean denon eskura utzi. “Burulogy erabiltzeko gure tailerretara etorri behar da. Tailer horietan guk jartzen dugu tableta eta behar den guztia”. Ariketak egin ahala, arduradunek parte hartzaileen emaitzak jasotzen dituzte eta hila-bete amaieran informe bat egiten da. Gero, emaitza horiek familiari jakinarazten zaizkie. “Diagrama batzuekin azaltzen diegu prozesuan izan dituen emaitzak eta landutakoak zein eragin izan duen ikus dezakete”. Aitor eta Irunereren arabera 60 urterekin normala da eboluzioa ikustea, “baina 70-80 urterekin zaila da”. Beraz, inboluzioa egonez gero, helbu-

ria da hori muga batzuen barruan izatea. Azken finean, gaitz bat egonez gero, “ez garatzea edo lehen minututik harrapatzea”.

Talde bi

Maiatzaren 18an ekin zioten proiektuari eta gaur egun talde bi dituzte. Bata goizez, eta bestea arratsaldean. Klaseak Izarra Centerren dira eta parte hartzeko bi modu eskaintzen dituzte. Astean ordu-bete egitea edo bi ordu. “Momentuz esperientzia ona dihardu izaten”, Aitor eta Irunereren berbetan. “Batzuk errezeroarekin hurbildu ziren, pentsatzen zutelako ez zirela ondo moldatuko teknologia horiekin, baina klasea amaitzean hurrengo noiz izango zen galdezka zeuden”.

Burulogyn ari diren gehienak 60 urte ingurukoak dira. “Pentsatzen genuen jubilatua etorriko zirela gugana, baina lanean dagoen jendea etorriko dela uste dugu orain, jubilatzeke zorian edo jubilatuta berri daudenak”. Eurek



MUGA **MUGIKORRAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

OINAK **LEIRE MAYORA**
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Iberikoetan espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com



puntu garrantzitsu bat sumatzen dute hor: lanean burua asko lantzetik, jubilatatu eta burua ia ez lantzerara pasatzea. “Guk burua lantzea eskaintzen diegu, buruaren aktibitate hori ez galtzea. Etorkizunera begira sendagaietan aurrezpena suposatu dezake horrek, adibidez”. Nor-

beraren bizitzarako onura izateaz gain, noski. “Alzheimerre bi urtez atzeratu badezakezu, ba bi urte dira!”.

Kasu bitxi moduan, 88 urteko parte hartzailearena aipatzen dute. “Alzheimerre dauka eta pentsatzen genuen ez zela gai izango gauza askorik egite-

ko, baina berak bakarrik idatzi eta egiten ditu ariketak. Pasada bat da!”.

Ariketa pertsonal- zatuak

Psikologoek erabiltzen dituzten ariketak hartu eta tabletera egokitu ditu Burulogyk. “Moldatu ditu-

gu, baina oinarri batekin”. Prozesuan zehar norberaren beharren arabera egokitzen dituzte ariketak eta, beraz, “eurentzat ez dira errazegiak, ezta zaillegiak ere, eta horrela ez dira aspertzen edo ez dute amore ematen”. Aitor eta Irune, gainera, parte hartzaileen gainean daude euren kontrol zehatza eramateko eta prozesua gainbegiratzeko.

50 urtetik gorakoentzat zuzenduta badago ere, “gazteagoak badatoz ez legoke arazorik”. Eurentzat garrantzitsuena da burua lantzeko ohitura hartzea. Beraz, burua lantzea nahi izanez gero, info@burulogy.com helbidera, Facebook eta Twitter kontura idatzi; edota 679052651 telefonora deitu edo WhatsApp-a bidali daiteke.

Ekhi Velar

Ugaro

aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

ONGARAI ESKOLAK EZ DU LOMCEKO ERREBALIDA BAIMENDUKO

Ongarai eskola EAEko hogeita hamar ikastetxeren artean izendatua izan zen hirugarren mailako kanpoko froga egiteko, baina eskolako komunitate osoa Lehen Hezkuntzako froga horren aurka jarri zen. Irakasleen klaustroak, Eskola Kontseiluak eta Ikasleen Guraso Elkarteak euren oposizioa adierazi zioten LOMCEK hirugarren mailarako agintzen duen froga horri.

Hezkuntza Sailak diagnostikoko froga deitzen dio eta orain arte laugarren mailan egin dena ordezkatzeko du. Ongarai eskolakoek diotenez, "froga horrek ez dauka ez balio akademikorik, ezta pedagogikorik ere. Ikastetxearen eta ikaslearen kalifikazio puntuala besterik ez du bilatzen". "Ikastetxean egiten dugun ebaluazioa jarraitua eta kualitatiboa da, ikasle bakoitzaren beharretan zentratua", gehitzen dute.

Euskal Birusaren ekintzak Santixauen aurretik

Santixauak ate joka ditugu eta herrian nabari da jai giroa. Uztaila hasieratik ekintzak antolatu dira herri osoan eta agenda bete-beteta datorkigu. Euskal Birusak ere, urtero legez, hainbat jarduera antolatu ditu Santixau aurreko egunetarako.

Uztailaren 14an, adibidez, magia ikuskizuna egongo da Martxoak 8 plazan 22:30etatik aurrera Kidam magoaren eskutik. Gasteizeko mago honek 1994an hasi zuen bere ibilbidea eta ordutik 2.000 ikuskizun inguru eskaini ditu. Telebistan, antzestoki eta bestelakoetan aritu da urte guzti hauetan zehar.

Musikak hartuko dio lekukoa magiari uztailaren 16an, Siroka taldearen kontzertua egongo baita Martxoak 8 plazan 22:30etatik aurrera. Rock talde honen abestiak Euskal Herriko irratietan daude entzungai eta arrakasta dihardu izaten publiko gaztearen artean. 'Haize berriak' eta 'Karosi' diskoen ostean, 'Malutak' da euren lan berriena.

Santixauetan gehiago murgilduz, Euskal Birusak jakinarazi nahi du hilaren 17, 18, 24, 25, 26 eta 27an Txikurixa zabalik egongo dela. Egun eta gaueko txosna jarriko da eta adin tarte guztientzat egongo da zabalik. Bertan lagundu nahi izanez gero, Euskal Birusak eskaintza luzatzen die herritarrei eta 688632874 telefonora deitu daiteke norbaitek laguntza eman nahi badu.

III. Gazte Eguna uztailaren 11an

'Hankaz gora jarri herria!' lelopean III. Gazte Eguna antolatu du Ermuko Gazte Asanbladak uztailaren 11rako plazan. Egun osorako ekintzak pretatu dituzte eta 11:00etan emango zaio hasiera programari, txikientzako jolasak eta kamiseta tailerra egongo delako ordu horretan. 13:00etan trikibertsopoteoa hasiko da Jon Gurrutxaga eta Maialen Akizurekin batera; 14:30ean bazkaria egingo da ikuskizunarekin; 16:30ean DJ Olalde musika ipiniko dio arratsaldeari; 17:30ean Gazte-olinpiadei emango zaie hasiera; 18:45ean kontzentrazio egingo da 'Herri bat, gaztetxe bat!' lelopean eta, ordu berean, Motxaila taldearekin elektrotzaranga egongo da; eta egunari amaiera emateko Skapital City, Zain eta Stai Zitto musika taldeek kontzertua eskainiko dute. Bazkarirako tikieta prezioa 12 eurokoa da eta Txalaparta, Infreñu eta Lurpe tabernetan egongo dira salgai uztailaren 6ra arte.

Ermuko
III. GAZTE EGUNA
Uztailak 11

11:00 Txikientzako jolasak
Kamiseten tailerra

13:00 Trikibertsopoteoa
JON GURRUTXAGA
MAIALEN AKIZU

14:30 Bazkaria ikuskizunarekin

16:30 DJ Olalde

17:30 Gazteolinpiadak

18:45 Kontzentra
"Herri bat, gaztetxe bat!"
Elektrotzaranga
MOTXAILA

22:00 SKAPITAL CITY
ZAIN
STAI ZITTO

hankaz gora jarri herria!

BAZKARIRAKO TIKETAK
12€
Txalaparta, Infreñu, Lurpe
Aizko egun: urtialak 6

ERMUKO
Gazte Asanblada

Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

Garapenerako Lankidetzeta Plan berria

Ermuak Garapenerako Lankidetzeta Plan berria dauka. Horren bidez, Udalaren bitartez zein lankidetzeta egin nahi den zehaztea lortu nahi da eta, horretarako, jarraibide batzuk ezarriko dira nazioarteko lankidetzaren inguruan Udalak zein politika jarraitu behar duen jakiteko.

Plan horretan ezarritako oinarrien bitartez Udalaren gaitasun propioak aprobetxatu, horren inguruan herrian dauden elkarteak indartu, eta sentsibilizazio ekintzak eta garapenerako hezkuntza sortzea nahi da. Horrela, plan berri horrek azaldutakoa egingarria izateko, Udalak lankidetzeta ahalbidetzeko dituen eskumenak handitu ahal izango ditu. Zentzu horretan, giza larrialdi egoeretan esku hartu, lankidetzeta lanean modu zuzenean lan egin, Hegoaldeko elkarte publiko eta pribatuekin elkarlana egin eta planaren jarraibideekin bat egiten duten hezkuntza jarduerak sortu ahal izango ditu.



ON EKIN lehiaketa martxan

EKINGUNE Debabarrenako ekintzaileen arteko lankidetzeta eta promoziorako elkarteak ON EKIN lehiaketaren 3. edizioa jarri du abian, ideia eta enpresa-proiektuak garatzeko. Ekintza horren helburua sormena bultzatzea da, pertsona zein enpresen ekimenak sarituz.

Bi fasetan banatzen da lehiaketa. Lehenengoan, epaimahai batek aurkeztutako proiektu eta ideien aurre-balorazioa egingo du, eta horiek aurkezteko azken eguna uztailaren 2a izango da. Bigarrenagoa, uztailaren 9ko afarian egingo da. Bertan ekintzailetza babesten duten guztiek hartu ahal izango dute parte eta ideia edo proiektu onenari botoa emateko aukera izango dute. Gainera, antolatzaileen berbetan, "ekintzaile eta auto-nomoen arteko kontaktu-sarea sortu eta zabaltzeko aukera bikaina izango da".

Lehiaketaren oinarriak www.ekingune.com webgunearen ON EKIN atalean daude argitaratuta. Informazio gehiagorako ekingune@ekingune.com helbidea eta 943208420 telefonoak daude erabilgarri.

LIBURUTEGIKO PROIEKTU BAT MADRILERA

'Liburutegia, ikasketa komunitate' izenburua duen Udal Liburutegiaren proiektu bat Madrilgo Liburu Azokan aurkeztu zen praktika onen adibide gisa. Horrela, Ermuko liburutegiak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak antolatutako 'Irakurzaletasuna sustatzeko praktika onen Topaketan' hartu zuen parte.

UDAN ZER BERRI?

Udal Liburutegiak, bestetik, 'Udan zer berri?' izenburupean udan irakurtzeko liburuen zerrenda jarri du eskuragai Ondarroa, Markina-Xemein, Iurreta eta Durangoko liburutegiekin batera. Liburuez gain, ikus-entzunezkoen gomendioak ere agertzen dira zerrendan.

Zure
publizitatea:

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

DROGETEN ITTURRI
DROGETEN
DROGETEN

aldizkarian

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 9431 70065
www.quetzalmoda.com [E] [B]

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Montis **DQ**
Mouth

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Alaia Arroyo, arkitektura ikaslea:

“Gazteei gune bat eskaini nahi die nire proiektuak”

Unibertsitateko karrera amaierako proiektua ezin izan zitekeen kuttunagoa Alaia Arroyorentzat. Maite duen gune bat hartu eta bizitza eman nahi dio berriz ere. Merkatu plaza da gune hori eta gazteei zuzendurik gunea bilakatu nahi du berak. Ez du merkatu plaza nola hiltzen den ikusi nahi eta mahai gainean jarri du bere proposamena.

-Zergatik erabaki zenuen merkatu plazari buruzko proiektu hau egitea?

Txikitan amarekin arratsaldero joaten nintzen merkatu plazara eta estimua diot guneari. Gaur egun ez dauka ia erabilerarik, taberna bat ez ezik beste guztia itxi egin dutelako. Horrek pena ematen dit. Unibertsitateko proiektuan eraikin berri bat edo eraberritze bat egin behar genuen, eta gehienetan irakasleak esaten duena gauzatzaren dugu, baina egia esan horrek ez zidan ilusio askorik egiten. Beraz, uste nuen aukera ezin hobea zela nik nahi nuen gune bat hartzea, estimua nion gune bat. Ez nuke nahi Ermuko mer-

katu plazari Eibarkoari gertatu zaiona gertatzea, eta urte beteko lana eskaini diot proiektua lantzeari.

-Norbaiten begiradapean egin duzu lana, ezta?

Bai, tutore bat izan dut bide osoan zehar. Gaia proposatu nionean oso ondo iruditu zitzaion, eraikina ere nahiko arraroa delako, eta hura eraberritzea aproposa ikusten zuen.

-Herrian badago nolabaiteko bolo-boloa merkatu plaza-ekin zer egin ote behar den erabakitzeke.

Entzun dut anbulatorioa egin behar ote duten bertan eta beste hainbat kontu, baina urte hasieran Udalarekin egin nuen berba eta oraindik ez zegoen bertan ezer egiteko pentsatuta. Gogoia daukat berriz ere berba egiteko eta, orain amaituta dagoela, nire proiektua erakusteko.

-Zein prozesu jarraitu duzu egitasmoa egiteko?

Lehenik bertara hurbildu eta argazkiak atera nituen tutoreari erakusteko, egitura mantendu zitekeen ikusteko. Ikusi nuen egitura mantendu zitekeela, ahal den heinean behintzat. Proiektuaren barruan eraikuntza berria ere egin behar nuen, beraz, Ermuko araudia begiratu




eta solairu bat gehitzea ondo ikusi nuen. Gero, ez nekien zer jarri barruan, baina koadrilako batek heziketa kudeaketa elkartea dauka eta hiru pedagogik egiten dute bertan lan. Hainbat herritan ludoteka eta gazte-leku proiektuen garapena egin dute, beharren arabera, eta kontatzen dute Ermua oso azkar hazi zela eta kontua zela etortzen zirenak bizitzeko tokia izatea, bestelako ekipamenduak bigarren mailan geratuz. Orain konturatu gara horrelako gauzak behar ditugula eta gazteok ez daukagula guretzako gunerik. Hori eskaini nahi dut proiektu honekin. Barruan administrazio gune bat egongo litzateke, non gazteak orientazio laguntza jaso dezaketen, besteak beste; ludoteka bat, ga-

rrantzitsua dena; eskulan gune bat; dantza-gela bat; auditorio bat; liburutegi bat; informatika-gela... Gazte Ermua izena dauka proiektuak.

-Zenbateko kostua izango luke proiektu horrek?

10.000.000 euroko kostua. Zerbait erabat berria egiten saiatu naiz eta alga bioreaktiboaren fatxada ipini diot. Energia berriztagarrien inguruan teknologia berrienetarikoa da. Lamina estankoetan algak sartzen dira, fotosintesiaren bidez algak hazi, biogasa sortzen dute eta urte baterako energia ematen dute. Beraz, eraikinak bertatik hartuko luke energia. Gainera, alga horiek ur batean sartuta daude eta hori eraikinaren ur berorako erabiliko litzateke.

EKñi Velaz



DESCUBRE-TE
Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Baratze tailerrean lanean

Ingurugiroa bultzatu nahian, San Lorenzo eskolan baratze tailerra urte osoan zehar irekita dugu eta orain uda hurbiltzen ari denez, eskolako baratzea bere uzta jasotzen ari da. Urtean zehar ikasleak baratzean lanean egon dira eta era guztietako barazki eta landareak landatu dituzte: ilarrak, letxugak, espinakak, kalabizana, tomatea, kipu-latxoak, tomilloa, kalendula... Landatzeaz gain, zaintzeko ardura ere izan dute: lurra prestatu, ureztatu, belar eskasak kendu... Baina azkenean lan guzti horrek bere saria izan du, eta orain barazkiak jasotzen ari gara.

Baratzean, naturarekin zerikusia duten beste hainbat jardura ere burutzen ditugu: jardunaldi mikologikoetan parte hartu, hostoak batu, sailkatu eta bilduma egin, birziklapenerako materiala erabiliz eskulanak egin...



Gora antzerkia!

Pasa den maiatzaren 21ean 4. mailako ikasleak, Unibertsitate laboralean, "Gaixo Tranpatiak" antzezlan eskaini zuten eskolako beste ikasle eta gurasoen aurrean. Luzaroan egon ziren antzerkiaren entseguekin, baina azkenean primeran atera zen antzerkia eta jasotako txalo zaparrada ondo merezitakoa izan zen.

Antzerkia hasi aurretik antzezleak oso urduri zeuden: "Ahaztu egingo zait", "Txiza gure naiz" "Zenbat jende dago?" "A ze nolako nerbioak", "Ez naiz ausartuko"... eta horrelakoak entzuten ziren ikasleen ahotan, baina behin teloa ireki zenean guztia primeran joan zen eta ikasleak pozaren pozez bukatu zuten.

Gutun lehiaketa



Urtero eskolan ipuin lehiaketa egiten dugu, baina aurten gutun lehiaketarekin animatu gara. Ikasleek, pertsonaia ezagun bat aukeratu behar zuten, eta gutun horretan, besteak beste, pertsona horri buruz duten iritzia (ona zein txarra), miwesmena, sortzen dien kezka edota eskaeraren bat luzatzeko aukera zuten.

Hauek izan dira aurtengo irabazleak:

- . "On Kixote jauna". Dounia Achaabar
- . "Estimado Cesar Millan" Ismael López
- . "Kaixo Pablo". Lucía Petite
- . "Hola Enma". Ane Uranga

SAN LORENZO ESKOLAKO EK IDATZITAKO ALBISTEAK

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

TXALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGVAK
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

MARGARI OLAÑETA

- *Eibarren urteak badaramatzazu ere, Ermuko Erdiko kalekoa zara jaiotzez.*

Bai. Begira, behin amari bisita egitera joan nintzen eta Erdiko kalen mutil talde bat beheira begira ikusi nuen. Pentsatu nuen zerbait gertatu zitzaiela eta "zer pasatzen da?", galde-tu nien. Batek begiratu eta "igartzen da zu hemengoa ez zarela", esan zidan. "Ah ez? Jaiki denok! Ba kasualitatez kale honetakoa naiz", bota nien. Katu baten bila edo zenbiltzan.

- *Nolako haurtzaroa izan zenuen Ermuan?*

Polita. Toki baketsua zen, giro onekoa, denok elkar ezagutzen genuen. Nire herria zen! Gainera plaza geneukan etxe alboan eta beti Santixauen zain geunden. Munduan ez zegoen beste gauza ederragorik!

- *Baina Bilbora joan zinen oso gazte.*

Bai, gerrako umea izanik, seitiik hamabost urte nituen arte Bilbon ikasi nuen. Urtean behin etortzen nintzen etxera. 40 neskatxo ibili ginen familia moduan etxe polit batean Ibarrekolandan. Euskara galdu nuen han! Debekatuta zegoenez...

- *Zure ama 'Pedromarianekoa' zen, ezta?*

Bai. Nire aitxixta Pedro Maria zelako. Berak erosi zuen etxeari lehen 'Frantsesenekoa' deitzen zioten, gero abade bat bizi zenez 'Abadianekoa' eta aitxixkak erosi zuenean 'Pedromarianekoa'. Etxearen alde batean taberna zeukaten



84 urte ditu Margari Olañetak eta aldizkari bat bere kargu: Eibar aldizkaria. Senarraren lekukoa hartu eta kazetaritza ekin zion orain dela 13 urte. Aldizkariak bezala, berak ere istorio asko ditu gogoan, bizitza oso bat. Orain seme-alaba eta ilobez gozatu nahi du, aldizkariaren zuzendaritzak uzten dion heinean behintzat

eta, bestean, burdin-denda.

- *Eta zure aita, Ignacio, alkate.*

Bera 'Errotabarrikoa' zen, bere baserriak errota zeukatelako. Eta bai, alkate izan zen. Bost urte nituen bera hil zuteanean. Ia ez daukat bere oroitzenik eta hori ni alaba nagusia nintzela!

- *Nola bizi izan zenuen Gerra Zibila?*

Aita atxilotzera etorri ziren momentua ondo gogoratzen dut, ez zait inoiz ahaztuko. Sukaldea jendez beteta zegoen, amamak hartu eta plazara

eraman ninduen. Etxera laster etorriko zela esan zioten. Niri laztan bat eman eta eraman zuten.

- *Ez zenuen berriz ikusi?*

Bai, Eibarren zegoen atxilotuta eta joan nintzen. Pozpuzik jarri zen. Hura izan zen aita ikusi nuen azken aldia. Hilabete batzuetara, Elgetako bidera eraman eta han hil zuten.

- *Zein ikasketa egin zenuen?*

Gaztetan amari dendan lagundu nion, baina Eibarren administrazioa ere ikasi nuen.

- *Eibarrera ezkondu zinen. Aldea zegoen herri batetik bestera?*

Bai. Beste estilo bateko jendea zegoen Eibarren. Ermua txikia zen eta beste giro bat zegoen. Hala ere, gu mendigoizaleak ginen eta ez genuen kaleko giroa asko bizi izan.

- *San Blasa baino eibartarra goa zara orain?*

(Barreak) Ze onak San Blasak! Amaginarrebak erakutsi zidan San Blasak egiten eta orain familia osoari egiten dizkiot.

- *Senarraren lekukoa hartu zenuen Eibar aldizkariaren zuzendari karguan.*

Gutxien espero nuena zen. Senarra hil zenean, Eibar aldizkariako gauzak hartu eta Don Jesusi entregatzera joan nintzen. Orduan, zuzendaria ni izan behar nintzela esan zidan. "Ni?", harrituta nengoen. Nigan konfiantza jarri zuten eta asko lagundu didate. Jose Luis maketatzailea ere oso ona da eta eskerrak berrari!, lan handia delako.

- *13 urte daramatzazu aldizkariaren buruan. Noiz arte?*

Sarritan pentsatu dut utzi eta beste bati lagatzea, baina beti hurrengo urtera arte luzatzen dut epea. Baina orain bai, umeekin denbora gehiago pasatu nahi dut eta aldizkariak denbora kentzen dit. Hala ere, eskertzen dut Eibar aldizkariarekin gertatutakoa, alarguntasuna bete didalako.

Ekhi Velar

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Jon Unanue ehun milen bila


Ehun mila, hau da, 168 kilometro. 11.000 metroko desnibel positiboa. Datu guztiak jarriz gero, edonor ikaratu daiteke Ehunmilak lasterketaren aurrean. Bada, hori gauzatzea da Jon Unanueren helburua. Uztailaren 10ean, Beasaineko irteeran, helburu bat izango du buruan: lasterketa amaitzea.

Jon Unanuerentzat ez da gauza berria Ehunmilak lasterketa. "Ibilbide laburra, 88 kilometrokoa, egin nuen behin eta luzea birritan saiatu naiz egiten, baina ezin izan dut amaitu". Ono gogoratzen ditu kausak. "Lehen urtean neutralizatu egin ninduten ekaitza zeto-rrelako, 58 km-an. Asko falta zen, eta dena gogorra: Txindoki, Aizkorri... laz 30 km-an, Gorlan, erretiratu egin nintzen. Amari deitu eta bila etortzeko esan nion. Ezin nuen jan, hainbat kilometrotan jarraitu nezakeen, baina ez nukeen amaituko". Ez da atsegina hainbeste prestatu duzun lasterketa uztea, "baina gorputzari kasu egin behar diozu".

Lasterketa hau egiteko fisikoki oso ondo egon behar dela aitortzen du Unanuek,

baina lasterketan zehar "garrantzitsuena alde psikologikoa da". Berak helburu txikiak jartzen dizkio buhari, helmugan pentsatu gabe. "Orain tontor hartara iritsi behar naiz, ea bi ordutan hornikuntza puntura iristen naizen... horrela".

Ondo daki lasterketan zehar edozer gauza gertatu dakiokela, baina "disfrutatzea" nahi du, bidea oso polita delako. "Gainera, jende asko ezagutzen duzu. Korrikalari asko doaz eta, adibidez, gaueko ez dakit zein ordutan baten batekin elkartzen zara eta jendea ezagutzen duzu", dio. Izan ere, aurreikuspenen arabera denborarik onena egingo duenak 24 ordu ingurutan beteko du ibilbidea, "gutxi batzuk" Unanueren uste-tan. Izan duen esperientziaren arabera, berak




atseden puntuetan deskan-tsatuko duela uste du, arropa aldatu eta abar, "gehienon helburu amaitzea delako".

Unanuek ez du prestakuntza berezirik egin Ehunmilak lasterketarako. "Prestatzeko denbora askorik ez daukat. Ono prestatu beharreko lasterketa da eta kontziente naiz nire prestakuntza ez dela ona, ez nik nahi izango nuena behintzat. Saiatu naiz ahal dudanean kirola egiten, Urkora igo, dantzara astero joan... Azken finean, sasoi-egon, zaindu, ondo jan, ez erre, eta abar".

30 urterekin hasi zen

Unanue mendian korrika egiten. "Anaiarekin Hiru Handiak egitera joan nintzen eta mendian korrika egiteko ohitura hartu nuen". Berak nahiago du mendia errepidea baino. "Errepideko pare bat maratoi egin ditut eta oso gogorra egin zait. Ez da mendian moduan. Mendian zuk ipintzen duzu zure erritmoa". Era berean, fondoko lasterketak nahiago ditu laburrak baino, 20 kilometroko lasterketei laburrak deitu ahal bazaie. Uztailaren 10ean 168 kilometro izango ditu aurrean. Behingoz bete nahi dituen ehun milak.

Ekhi Velar



Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Ermuko Institutuak eraikina behar du

Kurtso bukaera heldu da. 2014-2015 ikasturtearen egin du, eta berarekin batera 1996 ikasturtean sortu ziren bi ikastetxe publikok ere euren bidea egin dute, Anaitasuna BHI eta Ongarai BHIk. 2015-2016 ikasturtean, bi ikastetxe horiek bat egin eta IES Ermua BHI sortuko da, Ermuko Institutua.

Duela bi urte DROGETENITTURRIn argitaratutako artikuluan, Ermuko eskola publikoan batxilerra indartzeko beharra azpimarratu nuen. Horretarako, ordea, ezinbestekoa zen herriko eskola mapan aldatetak gauzatzea. Gaur egun, ermurrantz onura handia ekarriko duen errealitateaz hitz egin dezakegu: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza(DBH) eta Batxilergoa lotuko dituen Ermuko institutuaz.

Bi faktorek eragin zuzena izan dute aldaketa positibo hori gauzatu dadin: alde batetik, herriko ikastetxe publikoetako irakasleen ekime-

nak, gurasoekin elkarlanean; bestetik erabaki politikoak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Ikastetxeen Zuzendaria den Jesus Fernandez Ibañezek, ausart jokatuz, eta bidean topatu dituen trabaugariri aurre eginez, Ermuko ikasleentzako alde egin baitu. Nire esker ona berarentzat.

Traba guztiak, ordea, ezin izan ditu saihestu

Egoera hobea bada ere, berri ona badugu ere, badira gauditu beharreko oztopo handiak (hezkuntzaren kalitatea nabarmen hobetuko luketenak). IES Ermua BHI ikastetxe berria, bat eta bakarria izanik, lau eraikin ezberdinetan egongo da bananduta. Ikasleek batzuetan eta irakasleek sarri, eraikinez eraikin ibili beharko dute hezkuntza jarduerak burutzeko. Zuzendaritza taldeen eta gurasoen ahalegina ez da nahikoa izan, lehenengo ikasturte honetan, eraikin bakarrean biltzeko institutu berria, Ermuko



Gaizka Areitioaurtena

Institutua.

Ermuko ikasleek egoera honen irtenbide duina merezi dute

Hauteskundeak igarota, herritarren arazoei irtenbidea topatzeko, herritarren zerbitzurako, bere burua aurkeztu duten 17 gizon eta emakume aukeratu ditugu ermurrrok. Udalbatza eratu berri da. Ez da hezkuntza izan hauteskunde programen lehentasuna. Hala ere, Alkate eta Zinegotzientzat nire eskaera zuzena: zuen esku hartzea, bakoitzarena bere esparruan, funtsezkoa izan daiteke kalitatezko Ermuko eskola publikoa eraikitzeko. Ermuko Institutuak bere eraikina behar du.

Ikasle eta irakasleek eraikinez eraikin ibili beharko dute



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Ebnailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



Maiatzak 16:
Ongi etorri bizitzara laztana!



Ekainak 5:
Zorionak Izaro! Muxu handi bat Eder, aita eta amaren partez!



Ekainak 15:
Zorionak Aiala eta ondo pasa zure 4. urtebetetzea. Musu handi bat Luken, ama eta aitaren partez!



Ekainak 17:
Zorionak Aner zure aitxitxa eta amama, guraso, osaba eta izeko, lagun eta, bereziki, lehengusina Ane eta Iramaren partez!



Ekainak 27:
Zorionak Hodei zure lehenengo urtebetzean. Muxu handi bat, ama, aita eta Anerren partez!



Uztailak 1:
Zorionak Unai! Musu handi bat etxe guztien partez. Ondo pasa zure eguna!

Hurrengo zenbakirako azken eguna: UZTAILAREN 13a



Uztailak 22:
Zorionak Josu! Segi orain bezain jatorra izaten. Denon partez!



Uztailak 28:
Zorionak Irati eta Libe zuen 14. urtebetetzean! Adin polita da, disfrutatu bikote! Zuen gurasaok.

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PUB YOMY

Zubiaurre kalearen bihotzean

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

**MALLABIA
1987**

Argazki hau 1987 urte ingurukoa da. Ordura arte, Ermuan ibilita, urte horretan sortu zan Mallabiko txirrindulari taldeie. Argazkian agertzen diren Ermu eta Mallabiko neska-mutilak eskolarteko mailakok dira.

Bertan agertzen diran karreristak hauek dira: Xabat Azagirre, Koldo Pradera, Iñigo Goiogana, Mikel Pradera, Ainara Garcia, Leire Aranburu, Igor Zorrozuza, Igor Astarloa, Jorge Marcos, Gorka Arrizabalaga eta Igor Garcia.

**ERMUA
1956**

Frontoiko zabalaren parean, Juli Queridoren eskailaretan, ezkerretik eskumara: Merche Amillategi, Begoña Gorritxategi, Conchita Iturriaga, Laurita Bilbao, Mari Carmen Aldazabal eta Inma Solozabal

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKOAK

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

ILEAPAINDEGIA*Izaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21
ERMUA

Gidariei elkartasunez eta laguntasunez haien ibilgailuetan eramateko eskatuz egiten den garraio eta bidaia modua da auto-stopa. Bide bazterrean behatza luzatuz, bidaiaren helmuga adierazten duen kartela erakutsiz hainbat modu daude auto-stopa egiteko, eta gehienetan musu-truk egiten da.

Auto-stopa egin duzu? Auto-stopa egin duen norbait zure autoan hartu duzu?



Bai, egin izan dut. Mallabiko Urriko Jaietara igotzeko, adibidez, euria ari zelako. Baita, noizbait, Eibartik etortzeko ere. Bakarrik egingo banu, beldur gehiago izango nuke, baina lagunekin egin izan dut beti. Gainera, autoa gelditzen duena nolakoa den ikusten dugu beti, ea konfiantza ematen digun.

Alazne Lopez, 18 urte



Sarritan hartu izan dut auto-stopa egiten zegoen jendea. Behin, Debatik Zumaiara eramane nuen bat eta beldurretan nengoen ea zerbait egingo zidan, baina beti esperientzia ona izan dut eta ez zait ezer gertatu. Hori gazteagoa nintzen egiten nuen, sendaagoa nintzenean, gaur egun ez.

Victor Imanol Orbe, 84 urte



Gauza biak egin ditut, auto-stopa eta auto-stopa egiten zeudenak nire autoan hartu. Hori bai, orain dela hainbat urte. Gaur egun ez da ohikoa auto-stopa egitea. Jendeak konfiantza gutxiago dauka besteengan, norbereria gehiago dago eta besteon beharrik ez badaukagu, ez ditugu horrelako gauzak egiten.

Jose Mari Muñoz, 51 urte



Auto-stopa egin izan dut, aspaldi, batez ere jaietara joateko. Nire autoan ere hartu ditut auto-stopa egiten zeudenak. Egia esan beldur pixka bat pasatzen nuen, baina hartzeko momentuan inoiz ez dut ezer txarrik pentsatu. Gaur egun ez dut ikusten auto-stopa egiten denik, beldurrarengatik agian.

Eva Zubizarreta, 58 urte



Tasio eta Sabino

- Orain bai! Aspaldian 5 edo 6. txandan egongo ginateke jada.

Uztailak 14, asteartea

- 18:00, Lobianon, ARGAZKI ERAKUSKETA: "Afrikak: jendeak lurak eta errealtateak", hilaren 20ra arte.

- 18:00, Okin-Zuriko kirol gunean ARETO-FUTBOL TXAPELKETAren hasiera.

- 19:00, plazan, harra eta sagarra lehiaketa.

- 20:30, Martxoak 8 plazan, MAGIA IKUSKIZUNA Kidam Magoaren eskutik.

Uztailak 15, asteazkena

- 19:00, Orbe Kardenalaren plazan, TXARANGEN ARTEKO JOKO gehiago.

- 22:30, BERTSO JAIALDIA Martxoak 8 plazan.

Uztailak 16, osteguna

- 17:00, plazan, Jaietan ere tratu onen aldeko PHOTOKLOWNA, Intujai antzerki taldeak giro-tuta.

- 19:00, plazan, : TXARANGEN ARTEKO JOKO gehiago.

- 22:30, KONTZERTUA Siroka taldearen eskutik Martxoak 8 plazan.

Uztailak 17, ostirala

- 18:00, plazan, PALETA TXAPELKETAren FINALAK.

- 22:30, Orbe Kardenalaren plazan PLAYBACK LEHIAKETA.

Uztailak 18, larunbata

- 8:00, Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, TXAKURREN ERAKUSTALDHEHIAKETA.

- 10:00, URKO 69etan ezetz! VII. IGOERA KONTROLATUA.

- 10:00, Orbe Kardenalaren pilotalekuan ARKU-TIRO PROBA.

- 11:00, Lobiano Kultur Gunean, ERROL eta ESTRATEGIAREN JOKOAK.

- 11:00, plazan, Alejandro Franco Maisu Internazionalak eskainitako ALDIBEREKO XAKE PARTIDAK.

- 12:00, David Genicioren omenez ERMUA HIRIKO IV. SLOTRALLY.

- 16:00, plazan, HERRI ARTEKO XAKE PARTIDA AZKARREN XX. LEHIAKETA.

- 16:30, plazan, XIII. MUS TXAPELKETA HERRIKOIA.

- 19:00, plazan, Txindurriren DANTZA EMANALDIA.

- 23:30, San Pelaio plaza,

El arrebatu abeslariaren KONTZERTUA.

Uztailak 19, igandea

- 9:30, MENDI-BIZIKLETA-KO XX. HERRI MARTXA.

- 10:00, San Martin plazan, BLOOD-BOWL TXAPELKETA.

- 10:30, San Pelaio plazan, IRRATIZ KONTROLATURIKO KOTXEEN 'ERMUA HIRIA' XVIII. TXAPELKETA.

- 19:00, plazan, MUSIKA eta DANTZA JAIALDIA Serbiako Akud Branko Krsmanovic eta Indonesiako Krida Budaya taldeen eskutik.

Uztailak 20, astelehena

- 19:00, plazan, TXARANGEN ARTEKO JOKOAK.

- 10:30, Valdespina Markesaren parkean, KONTZERTUA Sengaleko Ndjouk Band taldearen eskutik.

Uztailak 21, asteartea

- 21:00, plazan, HERRI OGITARTEKADA.

- 22:30, plazan, TXARANGEN ABESTHEHIAKETA.

Uztailak 22, asteazkena

- 19:00, plazan, KONTZERTUA Senegaleko Fila Bougui-gui taldearen eskutik.

- 22:30, plazan, KALE IKUSKIZUNA, Los Infoncundibles taldearen eskutik.

Uztailak 23 osteguna (umeen eguna)

- 10:30, plazan, buruhandiak.

- 11:00/13:00 eta 16:00/19:00, plazan, umeentzako parkea eta tailerrak.

- 17:00, plazan, umeentzako txokolate-jana.

- 19:00, plazan, "A ze nolako banda parranda!" HAURRENTZAKO MUSIKA-IKUSKIZUNA.

- 20:30, plazan, APAR JAI.

BESTELAKOAK

- Hilaren 1etik 5ra: San Pelaio jaiak.

- Hilak 5: Elektrojaia San Pelaio plazan 15:00etatik 02:00etara.

- Hilak 6tik 26ra: Argazki erakusketa: "Afrikak: jendeak, lurak eta errealtateak", Lobianon.

- Hilaren 8etik 12ra: Sallabenteko jaiak..

- Hilak 11: Gazte eguna plazan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala

- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpetea
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Santixau jai egunetan Euskal Birusak eta Antxitxiketan Euskal Begirale Taldeak **TXIKURIXA** zabalduko dute aurreko urteetako leku berean. Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Lagundu nahi baduzu,
deitu 688632874 telefonora

SOR DEZAGUN ERMUAN JAI-GIRO EUSKALDUNA!!

Santixauetan
EUSKARA
MINGAINEAN



Euskal Birusa Elkarte



Euskal Biruseko kamisetak Txikurixan salgai!!




Helduentzat: 12€



Umeentzat: 10€

GREMIOEN

GIDA



DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILERA

dekorazio estudioa

trastévere
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

PINTURAK

J.LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua-Bizkaia

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

AROTEGIA

iraner
Puertas EDER Carpintería

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulua salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 • iranercb@gmail.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com